



*Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Onura jatetxea*

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Gure proiektuaren izena Onura jatetxea da. Jatetxe honetan menuetako prezioak oso ekonomikoak izango dira baliabide gutxiko pertsonen esku agoteko.

Astero menu berri bat sortuko dugu, dieta osasuntsu eta oreka batekin, jatetxean erabiltzen ditugun elikagaiak ingurumenetako nekazarien produktuak erabiltzen ditugu, kilometro 0-ko elikagaiak dira eta enpresa txikiak laguntzen eta sustatzen ditugu. Horregaitik gure menuan beti denboraldiko elikagaiekin egindako menu bat izango da.

Menua aldatzen joango da sasoiko produktuak erabiltzen ditugulako, hau da, udan adibidez, entsalada edo gauza hotzetan oinarrituko gara, eta beste aldetik, neguan zopa, txitxirio, patatak errioxar erara... Prestatuko ditugu. Orduan dietista bat izango dugu menu guztiak orekatu eta sasoiko produktuekin izateko.

Jende asko egongo da gure jatetxean lan egiten, adibidez, sukaldariak, zerbitzariak, administratzaileak... Honekin ere lan-postu berri asko sortuko ditugu herrian langabezi egoeran dauden pertsonentzat.

Gure jatetxean eskatzeko modu asko egongo dira, weborritik, jatetxean bertan, instagramen link bat jarriko dugu errazago izateko eta web-orrira zuzenean bidaltzeko. Bide auekin ere deskontuak sortuko dira, adibidez, web-orrian zenbat eta aldi gehiagotan web-orritik eskatzean puntuak lortzen joango zara eta puntu horiekin deskontuak emango ditugu. Egun berezietan ere deskontuak egongo dira jatetxean bertan eta mundu guztiarentzako deskontu berdinak izango dira.